

KONTROL MOZIOA

“Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko” izeneko proiektua dela-eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko maiatzaren 17an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko irailaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrean hau onartu zen:

- Udaleko Bide Publikoetako Zerbitzuak idatzitako “Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko” izeneko proiektua onartzen da. Idatzitako proiektuak 149.293,74 €-ko aurrekontua du, BEZa barne (123.383,26 € + 25.910,48 € %21eko BEZarenak) eta 2,5 hilabeteko exekuzio-epea aurreikusten du.

Proiektuaren bidez Irurak kaleko 1, 3, 5 eta 7. zenbakietako zein Koruko Andre Maria kaleko 27. zenbakiko irisgarritasuna hobetuko zuten, eta bi hilabeteko epean egin beharko zuten.

2019ko uztailaren 18ko udalbatzarrean aho batez ondorengoa onartu zen:

“Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Irurak eremuko bizilagunen mugikortasun-beharrak kontuan hartuz eta aurretik esan zitzaiena betetze aldera, lehenbailehen gauza dezala Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko proiektua”.

Jada beste bitan galdetu dugu honi buruz, azkena 2020ko abenduan Gune Publikoen Batzordean. Orduan bizilagunek emandako baimen batzuekin arazo batzuk egon zirela jakinarazi zitzaigun.

Beste behin ere maiatzeko batzordeetan honi buruz galdetuta, Gune Publikoetako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak aipatu zuen jada jabeek haien lurrak eman dituztela eta momentu honetan Udalean dagoela tramitazioa. Hain zuzen, duela urtebete erantzun zuten gauza bera.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Proiektu hau gehiegi luzatzen ari zela ere onartu eta gero, arazo nagusia Ondare atalean zegoela aitortu zuen, bertako baliabide urriak direla eta, proiektu hau eta beste batzuk kateatuta baitaude.

Gaur egun bizilagunek arkitektura oztopo ugari dituzte beraien etxebizitzetara iristeko. Proiektu honen arabera, espaloiak berrituko dituzte eta etxe atarrietara iristeko bideak hobetuko dituzte irisgarriak izateko.

Beraz, ia hiru urte pasatu ondoren, ezinbestekoa da proiektuari heltzea eta lanekin hastea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Ondare atala indartzeko behar diren neurriak har ditzala, horretarako giza baliabideak, antolaketa neurriak, baliabide materialak... ezarrita, auzotarrekin hartutako konpromisoak bete ditzaten.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Irurak eremuko bizilagunen mugikortasun-beharrak kontuan hartuz eta aurretik esan zitzaiena betetze aldera, urtea amaitu aurretik lanak abiatzea.
3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Irurak kaleko bizilagunekin batera lanen jarraipen-batzorde bat osatu dezala, arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko lanen jarraipena egiteko eta auzotarrek informazio eguneratua izan dezaten.

Donostian, 2021eko maiatzaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia